

EUSKAL KAZETARITZAREN SORRERA. KAZETA ETA KAZETARI GARRANTZITSUAK 1945 ARTE (hitzaldia, Nafarroako Unibertsitatea, 2004-11-26)

X. Altzibar fvpalarj@lg.ehu.es

Tfnoa: 94-601-0203

Hitzaldiaren laburpena

Atarikoak

1. Euskal kazetaritza zaharra / kazetari zaharrak **ez dugu/ditugu oso ongi ezagutzen**. Baina ezagutzea zor dugu.
2. Garrantzi gutxi eman ohi zaio euskal kazetaritza zaharrari, kazetaritza modernoaz ari gara ahobeteka, guztiz zaharkitua balitz bezala. Baina idazle oso onak dira gure kazetari zaharrak, hizkuntza eta estiloaren aldetik interes handikoak.
3. *Euskal kazetaritza* hitzen bidez euskaraz idatzitako kazetaritza adierazi nahi dut. Eta kazetaritza izena merezi duena, hots, berriak eta hauei buruzko iritziak agertarazten dituzten kazetak/agerkariak, kazetariak eginak. Beraz, bazter uztekoak edo bestela bigarren mailakoak dira kultura eta erlijio aldizkariak. *Kazeta* terminoak hartzen ditu egunkariak, astekariak, hamabostekariak, hilabetekariak etab. *Aldizkaria* terminoa kultura edo erlijio-agerkarietaz mintzo garenean erabiltzen dugu.

Ezaugarri batzuk: 1) Paper edo asterokook **enpresa** gisa antolatua dira: jabeak dituzte, etxea eta inprimategia, kazeta-zuzendariak eta egileak edo idazleak. 2) Euskal Herriko **hiri nagusietan** antolatua da (*Eskualduna* Baionan; Bilbon Azkueren eta aranatarren astekariak, *Bizkaitarra*, *Euzkadi* egunkaria, *Eguna* etab; Donostian *Euskal-Erria* eta *Argia*). 3) Euskal kazetaritza euskal **idazleen eskola**/lantegi eta biltoki (idazle nagusi baten inguruan) izan da. 4) Ipar eta Hegoaldeko kazetari-idazleen artean **harremanak** etengabeak izan dira.

Mugak. Euskal kazetaritza dei daitekeen zerbait bada 1945 baino lehen, edo 1976 baino lehen; euskal kazetaritza ez da orain dela 25 urteko kontua. Data hori hautatu dugu, bestalde, II. Mundu Gerraren ondotik gauzak aldatuko direlako munduko kazetaritzan eta Euskal Herrikoan, Iparraldean eta Hegoaldean. Adibidez, *Eskualduna* kazeta zaharra desagertzen da 1944an, elkartuek Parisez jabetzean, eta berehala *Herria* sortzen. Hegoaldean Errepublikaren kontra matxinatuek abertzaleen egunkari eta kazetak suntsiarazten dituzte gerra zibilean. Diktadurapean, leku agerikoetan euskaraz hitz egite hutsa debekatua zenean -salbu eta elizan-, erbestean hasi ziren euskarazko emanaldiak irrati bidez: lehenik, uste dudanez, 1947 inguruan, BBCn.

4. Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena (eskema)

1) Iparraldean sortu, tradizionalistek/kontserbadoreek sortu. Urratsak: aitzindariak: Xaho (1848), almanakak (1845—), Fedearen Propagazioneko urtekaria (1877). Indarrezko agerpena: *Eskualduna* (1887—1944). J. Hiriart-Urruti (ca 1891-1915); J. Etxepare (1903-1935). Ameriketako: *Escualdun Gazeta* (1885) eta *California-ko Eskual Herria* (1893-1898). Aldaketak: *Aintzina* (1934-1937), *Herria* (1944-).

2) Hegoaldean euskararen bizitzaren inguruko ideologiari eta abertzale politikari lotuak. Urratsak: Azkue: *Euskalzale* (1897-1899). *Ibaizabal* (1902-1903). S. Aranaren kazetak. Euzkadi: Kirikiño (1913-1928), Lauaxeta (1932-37). *Argia* asterokoa (1921-1936). Eguna (1937). Nafarroan: Pablo Fermin Irigaray "Larreko" (1869-1949); Enrike Zubiri "Manezaundi" (1867-1943)

I. Aitzindaria: Augustin Xaho (1811-1858). *Ariel* kazeta sortu zuen, Baionan ateratzen zuena (1844-1852). *Ariel*-en euskarazko anaia bizkia ere sortu zuen, *Uscal-Herrico Gasete*, lehen euskal kazeta, 1848ko ekain-uztailean, urte horretako iraultzaren gerizapean. Bi ale atera ziren bakarrik, dozenardi bat artikulurekin. Xahoren kazetagitza hau ideologikoa da.

Almanakak. Almanaka Ipar Euskal Herrian tradizio aski luzeko urtekaria zen. 1848an hasi zen ateratzen Etxeberri Uztaritzeko apaiza. Egunkari edo kazeta bakoitzak bere almanaka atera ohi zuen. Ipara Euskal herrian atereak laborarientzat eginak izan ohi ziren.

Eliz-aldizkari bat: **Fedeko Propagacioneco urtecaria** izenez ezagutu da, 1877an sortua eta Maisonnave kalonjeak zuzendua, eta gero 1891tik aitzina B. Joanategik (1837-1921).

Ipar Ameriketako euskal kazetak. Los Angeles-eko *Escualdun Gazeta* (1885), Biskailuzek egin, demokraten alderdikoa zen. *California-ko Eskual Herria* (1893-1898), Goitinok zuzendua, eta, dirudienez, euskara hutsean lehena. Euskal komunitatearentzat eginak ziren. Horregatik euskara nagusi zen edo huts-hutsik.

II. Eskualduna (1887-1944). L. Etxeberri diputatu-hautagai laikoak sortua *Réveil Basque*-n kontra. "Réveil" (1886-1898) errepublikar kazeta zen, Pauen ateratzen zena, Martial-Henry Berdoly prefete ohi eta eta hautagaia zuzendari zuena. Frantses eta euskaraz, bietan aritzen zen *Réveil*. 1898an *Le Pays Basque--Eskual-Herria* hasi zen haren tokia betetzen, Baionan ateratzen zena eta Lewy D'Abartiaguek zuzendua.

Eskualduna "xurien" kazeta zen, astekaria, euskaraz eta frantsesez. Bere burua euskaldun zeukan, "euskaldunek egin eta euskaldunentzat egin". Kazeta politikoa zen, III. Errepublikako gobernuaren oposiziokoa. Makila gisa jokatu. Erlijio katolikoa, familia eta familiaren zuzenak eta eginbideak defendatzen zituen. Euskal tradizioaren begiraletzat zeukan bere burua. Ez zen abertzalea ordea; Frantzia zeukan abertzat. Laborantza —hiriaren aurka— eta etxaguntzaren ondokotasuna defendatzen zituen. Iraun luzeko kazeta izan zen. Iparraldeko gizartean eragin iraunkorra izan du elizgizon, laborari, idazle eta

euskalzaleengan. *Eskualduna*-ko kazetari nagusietarik bi aipatuko ditugu: J. Hiriart-Urruti eta J. Etxepare.

Jean edo "Manex" Hiriart-Urruti (1859-1915) edo "Hiriart-Urruti zaharra" da "Euskal kazetari zaharretan aipatuena. Apaiz, kazetari, euskalzalea zen. *Eskualdunako* kazetagine buruzagi izan zen. Euskal herrietako berriak euskaraz eman zituen *Eskualduna*-n. 1903-1907 urteetan *Eskualdun Ona* izena hartu zuen; garai horretan 7.000 lumero jalgitzeraino iritsi zen.

"Ni kazeta-egilea naiz" antologian (Altzibar: 2004): Hiriart-Urruti aurpegi boskoitza erakusten da: 1) lehen mintzaldietako kazetari politikari eskuindar amorratu eta luma zorrotz eta bortitza, gizarte gaiez axolatua eta euskalzalea. 2) Euskal Herria, Frantzia eta mundu zabaleko gertakarien berriemaile kontalari bizi umoretsua. 3) gertakari xahartuxeak istorio bihurtzen dituen idazlea. 4) euskal idazleen eta euskal liburuen kritikaria. 5) istorio idazle eta itzultzailea.

Jean Etxepare medikua (1877-1935) kazetari baino idazleago da, nahiz bere lan gehin-gehienak *Eskualdunan* eta *Gure Herria* aldizkarian agertarazi zituen. Etxeparek kazetalan ugari idatzi zuen, gai eta genero desberdinetakoak, P. Xarriton-ek argitaratu dituenak: *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak* (Elkar-Euskalzaleen Biltzarra, 1984-1996) zenbait liburukitan. Kazetalan hauetan Etxeparek kontalari sena erakusten du, baita polemika zaletasuna.

III. Azkue eta Aranaren aldizkari edo kazetak

R. M. Azkuek bi sortu zituen Bilbon: *Euskalzale* (1997-1999) eta *Ibaizabal* (1902-1903). Politika bideak baztertu eta euskara hutseko paper edo kazetak atera zituen. Azkueren bidea hartu zuen gero *Argiak* eta euskal egunerokoa nahi izan zutenek.

Sabin Aranek prentsa bere ideien zabalkunderako erabiltzen jakin zuen. Hainbat kazeta sortu zituen. Geroxeagokoa, baina Aranren ildotikakoa da *Euzko Deya* (Bilbao, 1916-1923). Laikoek sortutakoa eta euskara hutsezko lehena.

IV. Euzkadi egunkariko euskal atal eta kazetariak: **E. Bustintza "Kirikiño"** (1866-1929). "Kirikiño" *Euzkadi* egunkariko kazetaria izan zen lanbidez. Berak antolatu zuen euskal atala (1913-1928), egunero idatziz. "Kirikiño" kazetari politikoa izan zen: JEL (Jainkoa eta Lagi zarra), euskera eta "euzkotasunaren" edo euskal ohituren alde gogor/kementsu jardun zuen. Denetariko gaiak eta generoak idatzi zituen. 1915ean beste atal bat irabazi zuen egunkarian, "Euzko Abendaren Elez", azken hau askotan berriemalen berriekin hornituz. Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna piztu zuen eta berriemalen sare bat osatu, idazle abertzale frankorentzat lehen eskola izan zena. "Kirikiño"k bere umore eta kontalari senari zor dio arrakasta, baita bere euskara atsegingarriari.

Estepan Urkiaga "Lauaxeta" olerkaria ere (1905-1937) kazetari zen ogibidez, eta *Euzkadi* egunkariko euskal orriaz arduratu zen 1931n, "Kirikiño" eta "Orixe"ren ondoren, hauek irekitako sail edo atal nahiz kazetalan motei jarraituz. "Lauaxeta"k iritzi artikulak (politika,

gizarte nahiz literaturari buruzkoak), albiste laburrak eta literaturlanak argitara zituen. Euskaraz batez ere, baita gaztelera. Politika eta gizarte gaietan "Lauaxeta" sabindarra, abertzalea, euskaldun giza taldeen —alderdi, sindikatu nahiz era guztietako batzen— batasunaren aldekoa__agertzen da ("Lauaxeta"ren artikulua bilduma batzuk argitaratu dira liburu gisa: *Azalpenak, 1931-1935* (Labayru, 1982) literaturarekin zerikusia duten artikulua eta umore eta ohitura ipuin barregarriez osatua, eta *Azalpenak eta beste. 1932* (EEE, 1991).

Argia asterokoa (1921-1936)

Argia da Hegoaldeko lehen euskal asterokoa, euskaraz oso-osorik. Gerra aurreko euskal astekari nagusia izan zen, zabalduena, bereziki Gipuzkoan. Apaiz talde batek sortua, Bittor Garitaonaindia izan zen zuzendari 1921-1929 bitartean, eta ondoren P. Etxeberria, J. Arrue, A. Zatarain eta A. Arzeluz "Luzear". Idazle garrantzitsuenetariko bat, G. Mujika kazetaria izan zen. *Argiak* ipuin, olerki eta bertsoak ekarri ohi zituen, herrietako berri, erlijio gauza, kirol, lugintza-kontu, azoka eta ferietako gorabeheraren ondoan.

Erlijo- eta kultura aldizkariak: (Nafarroan) *Zeruko Argia* (1919-1936) hilerokoa, Iruñeko Aita kaputxinoena. Hor idatzi zutenen artean: D. Inza, J. Yurre, "Larreko"...

El Dia Donostiako egunkaria (1930-1936) aipagarri da, euskararen ghettoa (artikulu garrantzitsuenak erdaraz, bigarren mailakoak euskaraz) apurtzen lehena izan bide zelako — K. Mitxelenaren arabera—, Hegoaldean bederen, "Aitzol"en eraginez. Lehen orrialdean agertu ziren euskarazko artikulua franko, nahiz kultura eta bereziki literaturazkoak izan (olerkariak etab.). Albisteak, jakina, gaztelaniaz zetozen, tokian tokikoak-edo ez baziren behintzat.

"Lizardi" k (1896-1933) 1927-1933 bitartean idatzi zuen *Euzkadi*, *Argia* eta *El Dían* batez ere. Ehundik gora kazetalan idatzi zituen, euskarazkoak eta gaztelaniazkoak elkar jota. 1934an, bera hilda gero, *Itz-lauz* bilduman horietako zenbait argitara zituzten. Gai nagusiak, erdaraz nahiz euskaraz, euskararen aldeko ekintza kanpaina eta euskal literatura dira. Euskararen aldeko ekintza kanpainan **euskal eguneroko baten proiektua** diseinatu zuen, gai honetaz berak eta Txomin Arruti "Mendi-Lauta" k zenbait artikulua idatziz. "Lizardi" k "katoliko galtzaduna", "politika-alderdi gabekoa" izan zedila nahi zuen, "ez eleiz orria".

Aintzinaz mintzatzean, **Lafitzez** mintzatu beharra dugu. Hain zuzen, Pierre Lafittek (1901-1982) gidatutako gazte talde batek sortu zuen *Aintzina*. Gazteen arazoez biziki arduratzen zen eta horretakotz mugimendu batzuk sortu zituen (Eskualzaleak, Menditarrak eta Begiraleak). *Eskualduna* eta beste kazetek ez zituzten gazte hauek asetzen eta horregatik sortu zuten *Aintzina*. Gazte hauek Euskal Herrizaleak ziren (*Les Eskualerristes* deitzen zituzten). Eskualdezaleak (fr. *regionalistes*) eta federalistak ziren, baita euskal kulturaren aldekoak, noski, eta abertzaletasunera hurbiltzen zirenak, holakorik nekez irets zezakeen giro eta garaian.

Aintzina hileroko elebiduna zen. 1934an agertu zen eta 1937ko irailean desagertu. 33 ale argitara zituen guztira. P. Lafitte bera izan zen gehien idatzi zuena, gero aipagarri dira P. Larzabal, Diharzetarrak, M. J. Jauregiberri...

Eguna

Gerrateak sortu zuen euskara hutseko lehen egunkaria, *Eguna*, euskalzaleek aspaldi amestutakoa eta Lizardik egin asmo zuena ustekabean egia bihurtuz. Bilbon jaio zen 1937ko Urte Berri egunean, EAJ eta Euzko Jaurlaritzaren aginduz eta haien pentzutari, eta Bilbo jausi arte iraun zuen, hots, urte erdi. Asaldatuak Mola jeneralaren buruzagitzapean eginiko erasoaldian sortu zen, gudari euskaldunei indar emateko asmoz, euskara eta euskal kulturarentzat egoerarik larrienean.

Bi-hiru orrikoa zen eta zortzi hamar mila ale inguru ateratzen omen ziren, gehienbat gudalekuek banatzen zirenak. Idazlari finko eta nagusiak Augustin Zubikarai eta Eusebio Erkiaga izan ziren, *Egunan* bildu ziren, izan ere, *Euzkadi* eta gainerako kazeta abertzaleetan (*Euzko, Ekin, Argia, Euzkerea, Arabarra...*) idazten zuten asko. Gerrateko egunkari abertzale gisa, *Egunak* Euzko Jaurlaritzaren begiradapean jardun zuen informazio, iritzi eta propagandaren arloan.

Egunak iritzi sail eta artikulu ugari izan zituen: Idazle batzuk aipagarriak dira: I. Eizmendi "Basarri", J. Insausti "Uzturre", M. Arruza "Arrugain", T. Agirre "Barrenoso", A. Anabitarte "Atarrene", Tx. Arruti "Mendi Lauta", etab. Idazlari nagusiek bizkaieraz idatzi zuten; laguntzaileek, bizkaieraz nahiz gipuzkeraz. Bestalde, ohargarria da *Egunan* literatur lan asko agertu zela, gerra girokoak eta gertaerei buruzkoak gehienak: olerki eta bertsoak, ipuinak. Are eleberri bat, Tx. Arruti "Mendi Lauta"ren *Lorettoa* nobela, emanaldika.

Kazetari nafarrak: Pablo Fermin Irigaray "Larreko" eta Enrike Zubiri "Manezaundi"

Larreko "(1869-1949) ibilbide luzeko idazle-kazetaria da, Iparraldeko eta Hegoaldeko kazeta eta aldizkariak elkarrekin lotzen dituen katea. Auritzen (Burguete) sortua, midikua, Baztanen bizi izan zen. *Euskal Eснаlea, Argia, Eskualduna, Gure Herria, Herria* eta abarretan. Askotariko gaiez idatzi ere: aroa, osasuna, merkatuko berriak, laneko gorabeherak, hauteskundeak, istripuak, elizkizunen berriak, gaitzespen eta onespak, hil handiei agurrak (Mussolini, Tx. Agirre...), liburu eta artikulu onen laudorioak eta abar. Gerra garaian *Gerla urte, gezur urte. Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo* idatzi zuen, oraintsu argitaratua izan dena, aro zail eta ilun haren kronika hunkigarria, euskalzale baketiar baten kezka eta gogoetak erakusten dituena.

"Larreko"ren euskara goi-nafarrera iparraldekoaren, eta, zehatzago, baztanera eta lapurteraren batze eta apaindura da, forma herrikoiak —eta autore zaharrenak, gordeaz eta berrikeriak eta hitz berriak baztertuz. Euskara aberatsa, hitz eta esapidetan. Han-hemenka idorsko da baina, oro har, jaun ematen du.

"Manezaundi" (1867-1943) Luzaiden (Valcarlos) hazi zen. Pintore ezagun eta entzute handikoa bere garaian, erretratua eta paisaia landu zituen. Euskaraz nahiz erdaraz idatzi zuen,

azken honetan gai eztabaidatuak. Kulturaz jantzia zen. 1928-1936 bitartean idatzi zituen bere kazeta artikulak, batez ere *La Voz de Navarra*, Donostiako *El Día* eta Baionako *Eskualdunan* agertaraziak. Gaiak: gertakizun eta ipuinak, gizon ospetsuak, politikazkoak, paisaiak, burutapenak, euskarari buruzkoak, historikoak, ohiturazkoak, kazetari-kronikak, gutunak.

Behenafarrera mendebaldekoan idatzi zuen (Kintoa, Arnegi, Ortzaize eta Baigorri inguruetakoa). Baina landu egiten du. Euskara jatorra dario berez, eta aberatsa hitz eta esapideetan.

Bibliografia

(Idazleen bilduma eta hitzaurre)

Jean Hiriart-Urruty: Mintzaira, aurpegia: Gizon!, P. Lafitte-ren ed. P., Ed. Franciscana, 1971, hitzaur. —*Jean Hiriart-Urruty: Zezenak Errepublikan.*, Ed. Franciscana, 1972, J. Intxaustiren hitzaur..

Jean Hiriart-Urruty: Gontzetarik jalgiaraziak, Klasikoak, 67, 1995, I. Camino-ren ediz., hitzaur.

Jean Hiriart-Urruti. Ni kazeta-egilea naiz, Labayru-BBK Fundazioa, 2004, X. Altzibar-en edizioa, hitzaurrearekin.

Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak, 4 liburu, Elkar, 1984-1991), P. Xarritton-en ediz., hitzaurre banarekin.

J. Etxepare. Buruxkak, EEE, Klasikoak, 1992, I. Arrigain-en ediz., hitzaur.

J. Etxepare. Beribilez, EEE, Klasikoak, 1987, M. J. Kerejetaren ediz., hitzaur.

J. Saint-Pierre, *14eko Gerla Handia*, EEE, 1998, P. Charrittonek paratua, hitzaur.

P. Lafitte. *Kazetari-lan hautatuak*, Elkar, 2002. P. Sudupek , hitzaurrearekin.

Kirikiño. Egunekoa, Labayru Ikast., Sutondoa, 1981, J. M. Agirrek prestatua, hitzaurrearekin. —*Edo geuk edo iñok ez euskerearen alde*, Labayru Ikast., Sutondoa, 1989, X. Perearen hitzaur. —*Guda Nagusia, 1914-1918* (Labayru Ikast., Sutondoa, 1989, X. Perearen hitzaur.

Xabier Lizardi: J. M. Agirre Lizardi. Euskera aundiki-soñekoz, Klasikoak, 1995, L. Otaegik prestatua, hitzaurrearekin.

Lauaxeta (Urkiaga'tar Estepan). Azalpenak, 1931-1935 (Labayru, 1982, J. Kortazar-ek prestatua, hitzaurrearekin. —*Esteban Urkiaga. Azalpenak eta beste. 1932.* (EEE, Klasikoak, 1991, A. Mallonaren ediz., hitzaur.)

Eguna. Kultura eta Turismo Saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990.

Irigaray "Larreko", P. F., *Lekukotasuna*, EEE, Klasikoak, 1992, I. Camino-ren ediz. Id. *Nafarroatik.--Gerla urte, gezur urte*, Pamiela, 1993, J. A. Irigaray-ren hitzaur.

E. Zubiri "Manezaundi": *Artikulu bilduma*, EEE, Klasikoak, 1990. R. M. Pagola-ren ediz., hitzaur.

(Ikerlanak)

Agirreazkuenaga, J. Eguna, Kultura eta Turismo Saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990, hitzaur. "*Eguna: euskararen egunerokotzea komunikabideetan*". Id., Jakin, 11-30.

Altzibar, X.: "Kirikiño kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontalari", in *Gerra eta Literatura* (1914-1944), Oihenart-14, Eusko Ikaskuntza, 1997, 9-33.--"Etxagerrateak sorturiko *Eguna*, lehen euskal egunkaria", Oihenart-14, Eusko Ikaskuntza, 1997, 47-56.—"Euskalzale eta Ibaizabal, Bilboko asterokoak", in *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 Aniversario—Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza gunea. Sinposioa.*, 253-266.—J. Hiriart-Urruti, *Ni kazeta-egilea naiz*, hitzaurrea. --(Inprimatzen) "Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?", Txillardegiri Omenaldia.

Arbelbide, X. P. Lafitte.—Californiako Eskual-Herria (*¿*), Euskaltzaindia-BBK.

Casenave, J., *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*, Université Michel de Montaigne-Bordeaux III, 1997). Doktorego tesia.

Diaz Noci, J., *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Secc. Medios de Comunicación, 1995.

Hernandez Mata, A. "Piarres Lafitte Aintzina", Oihenart-15, Eusko Ikaskuntza, 1998.—"Pierre Lafitten sare intelektuala (1920-1940)", *Pierre Lafitteri Omenaldia*, Euskaltzaindia, Euskera 2001, 2, 581-638.

(zenbaiten artean) *Pierre Lafitteri Omenaldia*, Euskaltzaindia, Euskera 2001, 2.

Mitxelena, L., "La lengua vasca y el periodismo escrito", in *Lenguaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977.

Xarritton, P., aip. hitzaur.--"Jean Etchepareren euskal lanak", *Hegats* 4, 1991.